

SASIETA MANKOMUNITATEKO GARBIGUNE ZERBITZU PUBLIKOA ARAUTZEKO ZERGA ORDENANTZA

1. artikulua. Legezko oinarria

Toki entitate honek, bere estatutuetan xedatutako eskumenen arabera, baita 6/2007 Foru Arauak, apirilaren 10ekoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalez Gaindiko Erakundeak Arautzen dituenak, 13. artikuluan eta hurrengoetan zein 11/1989 Foru Arauak, uztailaren 5ekoak, Gipuzkoako Toki Ogasunarenak, 43 eta 49. bitarteko artikuluetan xedatutako eskumenen arabera ere, «Sasieta Mankomunitateko Garbigune zerbitzu publikoa emateagatiko tasak» ezartzen ditu.

2. artikulua. Xedea

Kontuan hartuta Mankomunitateak interesa duela herritarren bizi kalitatea etengabe hobetzeko eta hondakinen gaikako bilketa, birziklatzea eta berrerabilera sustatzeko helburuarekin, Ordenantza honen xedea da Sasieta Mankomunitateko udalerrien lurralde esparruan Garbigune zerbitzu publikoa emateagatiko tasak arautzea.

3. artikulua. Tasa ordaintzaileak

Tasa ordaindu beharko dute Garbigune zerbitzua eskatzen dutenek.

4. artikulua. Tasa ordaintzeko betebeharra

Zerbitzua ematen hasten denean sortzen da tasa ordaintzeko betebeharra. Zerbitzua ematen hasten dela ulertzen da eskaera inprimakia aurkeztu eta hondakina entregatzen den momentuan.

Prezioa ordaindu behar duen ordaintzaileari egotzi ezin zaizkion arrazoiak direla eta, zerbitzua edo jarduera ez bada ematen edo garatzen, dagokion zenbateko proportzionala itzuliko zaio ordaintzaileari.

Tasa ordaintzen ez bada, ezingo da zerbitzu hori berriro eskatu.

Oraindik tasa ordainagiriren bat ordaintzeke duten erabiltzaileei ez zaie bestelako zerbitzu eskaerarik onartuko.

5. artikulua. Salbuespenak

Tasak ordaintzetik salbuetsita egongo dira:

Tasak ordaintzetik salbuetsita egongo dira:

1. Mankomunitatearen barne dauden udaletxeetako zerbitzuek entregatutako hondakin onetsi guztiak.

2. Gainerako erabiltzaileek entregatzen dituzten hondakin onetsi guztiak, honako hauek izan ezik:

- a) Etxebizitzetako eraikuntza eta konponketa obra txikiak direla eta sortzen diren harrizko eraikuntza eta eraispen hondakinak: adreiluak, hormigoia, baldosak, plaketak, zeramika zoladurak, eskaiola, igeltsua, sabaiko plakak eta moldurak, konketak, komunak, dutxaontziak, teilak eta abar, betiere amiantodun fibrozementuzko elementurik gabekoak.
- b) Harrizkoak ez diren bestelako eraikuntza eta eraispen hondakin handiak, etxebizitzetako eraikuntza eta konponketa obra txikiak direla eta sortzen direnak: egur zatiak (parketa, tronadurak, markoak...), plastiko zatiak, beira zatiak, komuneko manparak, polikarbonato

izurtuzko xaflak, isolatzaile termiko eta akustikoak, *onduline*, olanak, binilo lurzoruak, asfaltozko geruzak eta abar.

c) Ibilgailu ez-industrialen pneumatikoak, dagoeneko erabiltzen ez direnak.

d) Etxeko animalien (maskoten) gorpuak.

3. Harrizkoak eta harrizkoak ez diren eraikuntza eta eraispen hondakin nahastu handiak, etxebizitzetako eraikuntza eta konponketa obra txikiak direla eta sortzen direnak, pertsonalki entregatuko dira, hondakinen kopuruak ez badu 100 kiloko muga gainditzen (25 kiloko 4 zaku) eta hondakinak behin eta berriz entregatzen ez badira (gehienez 500 kg hileko; hau da, 25 kiloko 20 zaku).

6. artikulua. Kudeaketa eta ordaintzeko modua

Zerbitzua eman aurretik ordainduko dira tasaren likidazioak.

Partikularrek eskudirutan ordainduko dute tasa, Garbigunean bertan.

Enpresak edo pertsona juridikoak badira, tasa banku helbideratze bidez ordaindu ahal izango da, edo bestela eskudirutan, Garbigunean bertan.

7. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak

Ondoz ondoko bi kuota ordaintzen ez badira, zerbitzuan baja emango da, premiamenduzko bidetik sorrarazitako eta ordaindu gabeko zenbatekoak kobratzea eragotzi gabe.

Gainera, Zergen Foru Arau Orokorrean eta hori osatu zein garatzen duten xedapenetan araututako arau hauste eta zehapen erregimena aplikatuko da.

8. artikulua. Tarifak

Beasaingo, Ordiziako eta Urretxuko Garbiguneetan hondakinak utzi, behin-behinean gorde eta horien amaierako kudeaketa egiteko zerbitzua erabiltzeagatik tarifak I. ERANSKINEAN daude zehaztuta.

Azken xedapena

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean Ordenantza hau, eta hori berariaz aldatu edo indargabetu arte aplikatuko da.

2019ko xxxxxren xx datan egindako ohiko bilkuran zuzendaritza batzordeak onetsi zuen Ordenantza hau.

I. ERANSKINA.- TARIFAK

— Etxebizitzetako eraikuntza eta konponketa obra txikiak direla eta sortzen diren harrizko eraikuntza eta eraispen hondakinak: adreiluak, hormigoia, baldosak, plaketak, zeramika zoladurak, eskaiola, igeltsua, sabaiko plakak eta moldurak, konketak, komunak, dutxaontziak, teilak eta abar, betiere amiantodun fibrozementuzko elementurik gabekoak: 69,59 euro/Tn.

— harrizkoak ez diren bestelako eraikuntza eta eraispen hondakin handiak, etxebizitzetako eraikuntza eta konponketa obra txikiak direla eta sortzen direnak: egur zatiak (parketa, tronadurak, markoak...), plastiko zatiak, beira zatiak, komuneko manparak, polikarbonato izurtuzko xaflak,

isolatzaile termiko eta akustikoak, onduline, olanak, binilo lurzoruak, asfaltozko geruzak eta abar: 106,19 euro/Tn.

— Ibilgailu ez-industrialen pneumatikoak, dagoeneko erabiltzen ez direnak, hagunetatik edo metalezko ataletatik bereizita: 1,50 euro/pneumatiko bakoitzeko. Erabiltzaileak erosketa faktura aurkezten badu, doan entregatu ahal izango du pneumatikoa. Urtean 5 pneumatiko entregatu ahal izango dira gehienez.

— Etxeko animalien (maskoten) gorpuak (Ordiziako eta Urretxuko Garbiguneetan soilik): 35 euro/animalia bakoitzeko